

Gurea

ALE BEREZIA

2017KO MARTXOA

ZAMAKOLA - JUAN DELMÁS

EGUNERO DA MARTXOAREN 8A

ESKOLAN EGIN
DITUGUNAK

ETA AUZOAN?

ZER OSPATZEN
DUGU? ZERGATIK?

IKERKETA TXIKIA

BERTSOA

M8 KAZETARIAK :

Nagore Romero

Xabier Perez

Ekaitz Bartolomesanz

Gorane LLamosas

Aitor Ruiz

Nayra Gallego



IKUSTEN AL DITUZU ALDEAK? 100 BAI? ALA GEHIAGO?

ESKOLAN EGIN DITUGUNAK

Haur hezkuntzakoek esku moreak margotu zituzten , ARROSA ETA LEUNA liburua irakurri zuten eta SUPER LOLA filma ikusi zuten . Animatu eta ikusi zuk ere! [.https://youtu.be/LVAFqiVM9qw](https://youtu.be/LVAFqiVM9qw).

2 urteko neska mutilek puxika moreak bota zituzten .

1. ziklokoek EL SUEÑO IMPOSIBLE <https://youtu.be/4UvE-zIsRYg> ikusi eta aztertu zuten.

3.mailakoek martxoaren 8aren inguruko informazioa eman zuten eskolako irratian eta mural bat egin zuten, emakume asmatzaileena.

4.mailakoek emakumeen biografiak egin zituzten. Zuek ba al dakizue nor izan zen Marie Curie?

3. zikloan tertulia literaria bat egin genuen, AMAR BIEN izeneko testu bat irakurrita.

Badakizue zer ikasi genuen ? Emakumea ez da gizonen panpina !

ETA AUZOAN?

Ostiralean, martxoaren 10ean, ipuin bat entzuteko aukera izan genuen zentro zibikoan:

ETA NESKA IZANGO BALITZ... IPUINA BERRIZ BERDIN.(Iñaki Carretero).

Abusuko liburutegian NESKATO dokumentala eman zuten martxoaren 14ean, eta genero indarkeriaren kontrako zumbathloia antolatu zuen Loturarik Gabe elkarteak martxoaren 12an, igandean.

ZER OSPATZEN DUGU? ZERGAITIK?

Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna martxoaren 8an ospatzen dugu. Herrialde askotan **Emakumearen Nazioarteko Eguna** izenarekin ere ezagutzen da. **Emakumeen eskubideen aldeko borroka ezberdinak gogoratzeko zein eskubide horiek betetzea eskatzeko** erabiltzen da eguna.

1977ko Martxoaren 8an Emakumearen Egun Internazionala lehen aldiz ospatu zen Euskal Herrian.

Bizkaiko Emakumeen Asanbladak egun hau ospatzeko ekintza batzuk antolatu zituen: goizean Bilboko leku batzuetan mahaiak ipini zituzten eta bertan emakumeei buruzko liburuak erakutsi zituzten. Arratsaldeko 7:30ean, San Francisquito elizan, batzar batean mila emakume baino gehiago bildu ziren, eta amaitzerakoan, Santutxun zehar manifestazioan atera ziren.



Bizkaiko emakume askorentzat lehen pausu bat izan zen hura. Hainbeste emakume elkartzen ginen lehenengo aldia izan baitzen .

BERTSOA

Etxea garbitzeko
luzea denbora
denok lana egiten
guztiok gustora,
matxismoaren kontra
maitasuna gora
Martxoaren 8a
beti izango da




“maite ditut denak” doinua

<https://youtu.be/afZa5wesfE8>

IKERKETA TXIKIA

Egun hauetan auzoko ehun pertsoneri galdetu diegu ba al dakiten zer ospatzen den martxoaren 8an . Adi grafikoari! harritzekoa, ezta?



CEP Zamakola
Juan Delmas LHI

